# ESKOLA KIROLA 2023/2024

## ERAKUNDEAK INSKRIBATZEKO ESKULIBURUA


0. SARRERA ETA IDENTIFIKAZIOA 2

   a) Egoitza elektronikora sartzea 2

   b) Erakundearen ordezkariaren ziurtagiria 3

   c) Bak, BakQ, NAN elektronikoa edo baliokidea 5

1. ESKABIDEAREN DATUAK 6

   a) Erakundearen eta kirol-arduradunaren datuak 6

   b) Adingabearen ongizate-arduradunaren datuak 7

   c) Baimenak 8

2. BIDALKETA ETA SINADURA 9

3. IZENA EMATEKO PROGRAMAN SARTZEKO GAKOAK 10

# 0. SARRERA ETA IDENTIFIKAZIOA

a) Egoitza elektronikora sartzea:

www.bizkaia.eus/eskolakirola helbidean sartu eta honako hauek aukeratu behar dituzue:



b) Erakundearen ordezkariaren ziurtagiria: **entitatearen izenean dagoen ziurtagiri elektronikoaren bidez** egiten bada, honela sartu beharko duzue:



Hurrengo pantaila agertuko zaizue, eta bertan erakundearen IFZ eta izena sartuko dira, zuzen-zuzenean, “Interesdunaren datuak”-en laukietan.



c) Bak, BakQ, NAN elektronikoa edo baliokidea: **Egoitzara inskribapena eskatzera doan erakundearen ordezkariaren ziurtagiriaren bidez** (Bak, BakQ, NAN elektroniko) sartzen bazara, honela sartu beharko duzue (kasu honetan, posta elektronikoan bidaltzen dizuegun ordezkaritza egiaztatzeko agiria bete beharko da)




Pantaila honetan, ordezkatzen duzuen erakundearen datuak bete beharko dituzue:



# 1. Eskabidearen datuak

a) Datu orokorrak bete ondoren, erakundearen eta kirol-arduradunaren datuak bistaratuko ditugu pantailetan, aurreko denboraldiko datuekin beteta. Aldaketaren bat egin nahi baduzue, pantaila hauetan egin dezakezue:






b) Ondoren, pantaila bete behar duzue adingabearen ongizate-arduradunaren datuekin:



c) “Baimenak” izenburuko hurrengo pantailan aitorpen hauek irakurri eta klikatu beharko dituzue:



**Eskola Kirola programan 2023/2024 denboraldian parte hartzeko izen ematea prozeduraren Eskabidea inprimakia**

1 Erregistroa | 2 Bidalketa eta sinadura

- Datu orokorrak ✓
- Entitateko datuak ✓
- Kirol arduraduna ✓
- Ongizate arduraduna ✓
- Baimenak

Erakundeko zuzendari edo lehendakari legez, Eskola Kiroleko jardueretan izena emateko, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzura Interneten bidez igorritako datu guztiak benetakoak direla egiaztatzen du. Halaber, konpromisoa hartu du Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari ezkutuko gakoa galdu, lapurtu edo bidegabe erabili dela jakinarazteko, baita erakundetik kanpoko pertsonek gako hori ezagutzeko aukera dagoenean ere.

Nire gain hartzen dut

☐ Bai

Nire erantzukizunpean adierazten dut entitateak haurrak eta nerabeak babesteko protokolo bat duela eta hura kudeatzen duen ongizate-arduradun bat izendatu dela. Gainera, kirolariekin lan egiten duten pertsona guztiek (eskola-kiroleko arduradunak, entrenatzaile e.a.) kirolean haurrak zaintzeko eta babesteko sentsibilizazio-ikastaroa egin dute.

Entitateak haurrak eta nerabeak babesteko protokolo bat duela

☐ Bai

Nire erantzukizunpean adierazten dut entitateak bertan zerbitzu ematen duten lan-kontratudun langile, langile boluntario eta/edo laguntzaile guztiei, baldin eta adingabeekin harremana izan ohi badute, zera jakinarazi diela: - Datu horiek lortzearen kontrako iritzia azaltzen ez badute, Bizkaiko Foru Aldundiak, ahal denean, elkarreraginean jardungo duela euren sexu-delituei buruzko datuak lortzeko.

Entitateak bertan zerbitzu ematen duten lan-kontratudun langile, langile boluntario eta/edo laguntzaile guztiei, zera jakinarazi die

☐ Bai

Aurrekoa | Hurrengoa

## 2. Bidalketa eta sinadura.

Azkenean, “bidalketa eta sinadura” fitxan eskabidearen datu guztiak jasotzen dituen laburpena agertuko da. Behin datu horiek zuzenak direla egiaztatu eta gero, “sinatu” botoia sakatu eta berriz sartu pasahitza. Dena behar bezala joan bada, pdf fitxategi bat eskuratuko duzue, dagokion erregistro-zenbakiarekin.



Eskola Kirola programan 2023/2024 denboraldian parte hartzeko izen ematea

Inscripción para participar en el Programa de Deporte Escolar durante la temporada 2023/2024

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Eskabidea
Solicitud

**Erregistroa** / Registro

Datu orokorrak / Datos generales

Interesdunaren datuak / Datos de la persona interesada

IFZ / NIF

Izen-deiturak edo sozietatearen izena / Nombre y apellidos o razón social

Harremanetarako datuak / Datos de contacto

Telefono mugikorra / Móvil

Posta elektronikoa / Correo electrónico

## 3. Izena emateko programan sartzeko gakoak

Eskaera behar bezala eginda badago, gehienez 24 orduko epean (eskaera egun baliodunean egiten bada) erakundeak taldeak eta kirolariak [www.bizkaia.eus/eskolakirola](http://www.bizkaia.eus/eskolakirola) webgunearen bidez inskribatu ahal izateko gakoak jasoko dituzue zuen e-mailean, eta bertan honako hauek aukeratu behar dituzue:

